

ZONALDEKO BILERETAN EMANDAKO INFORMAZIOA / 2014ko urtarrilak

1. GURASO ELKARTEEN HEZKUNTZA-JARDUERA ONEN 4. LEHIAKETA

Lehiaketaren helburuak hauek dira: IGEen eguneroko lana aitortzea; Gurasoen parte-hartzea sustatzea ikastetxeetan eta IGEen eta ikastetxeen arteko ideien eta esperientzien trukea erraztea eta sustatzea.

Lehiaketara mota guztietako hezkuntza-jarduerak aurkeztu daitezke, sinpletetik hasi eta konplexuenetaraino. Beste IGE eta ikastetxe batzuentzat eredugarri izan daitezkeen esperientziak baloratuko dira, baita guraso elkarteetan lan eta borondate ona erakusten dutenak ere. 2012-2013 ikasturtean egindako edo 2013-2014 ikasturte honetan garatzen ari diren jarduerak aurkeztu daitezke.

Lanak aurkezteko epea: 2014ko apirilak 11arte. IV lehiaketa honen sariak hauek dira: 1. Saria 1.500 euro; 2. Saria 1.000 euro; 3. Saria 500; eta beste 500 euroko sari berezia testuliburuaren kudeaketa ona egiten duen egitasmoari. Sariak 2014ko ekainaren 1ean Balmasedan ospatuko den Euskal Eskola Publikoaren 23. Jaian banatuko dira.

Udazkenean topaketa bat egingo da saritutako jarduerak ezagutzeko, eta EHIGEk argitaratutako liburuxka batean jasoko dira saritutako lanak. Gogoratu iazko lehiaketan Gipuzkoako lau Guraso Elkarteetan lanak sarituta izan zire: Elgoibarko Kalamua Guraso Elkarte (1. Saria); Donostiako Kanpandegi Guraso Elkarte (2. Saria), Lasarte Burunzpe Guraso Elkarte (acesita) eta Zeraingo Basarte Guraso Elkarte (acesita)

2. HAUR-LEHEN HEZKUNTZA –DBHko MATRIKULAZIO KANPAINA

Otsailaren 3tik 14ra izango da matrikula egiteko epea, derrigorrezko hezkuntzari dagokienez hain zuzen ere (Haur eta Lehen Hezkuntza eta DBH). Ikastetxe publikoek beren publizitate kanpainak egin dezaten sustatzeko, BAIKARA aurreko urteetan egin den bezala, 60 euroko diru laguntza emango die ikastetxeei, tokiko komunikabideetan publizitatea jartzen laguntzeko.

Matrikulazio eskarien izapideei dagokienez, berrikuntza bakarra da on-line egin daitekeela prozesu guztia, ikastetxera joan beharrik gabe. Bestalde, ez dago berrikuntza handirik plazen plangintzari eta ibilbideei buruz; aldaketa egin da Eibarko sare itunduaren eragin eremuan, eta berrantolatu egin dira Donostiako Loiola-Martuteneko Amara-Erribera inguruko ikastetxe publikoen eragin eremua.

Aipatzekoa da, halaber, Eskola Kontseiluak baremazio prozesuan bi puntu emateko aukeraren alde egiten duten ikastetxeetan irizpide objektiboak finkatuko beharko dituztela horretarako, eta urtarrilaren 31 baino lehen horien berri eman. Bestela ez zaie onartuko baremazioan bi puntu emateko aukera.

3.- ESKOLA ORDUEZ KANPOKO EKINTZETAKO ETA ESKOLA KIROLEKO BEGIRALEEN AUZIA.

Nagusiki IGEek antolatzen dituzten eskola orduz kanpoko ekintzetako begiraleen egoeraren harira, IGE askorentzat kezagarriak diren hainbat gorabehera gertatu dira azken hilabeteetan. Berezik, prentsan argitaratu zelarik Lan Ministerioko ikuskatzaileek Arabako eta Bizkaiko zenbait ikastetxetara bisitak egin dituztela, eskola orduz kanpoko begiraleen lan egoerari buruz galdezka eta Gizarte Segurantzaren alta emanda zeuden egiaztatzen. Lan Ikuskaritzaren bisiten ondoren, ikastetxe horietako

IGEei eskatu diete begiraleen lan egoera erregularizatzeko, eta ohartarazi diete hala egin ezean isun handiak jaso ditzaketela.

Informazio hori jasota, eta jakinik Autonomia Erkidego osoa arriskupean dagoela, EHIGE Konfederazioan lan batzorde bat sortu da gai honen jarraipena egiteko eta irtenbideak bilatzeko. Batzordeak zenbait bilera egin ditu erakundeekin (Hezkuntza Saila, Lan Saila, aldundiak...), eta bilera eskatu du, orobat, Gobernuko Lan Ikuskaritzak autonomia erkidegoan duen arduradunarekin. Bilerak bilera, Lan Ikuskaritzarekin elkartu bitartean, gauzak ez daude batere argi, eta une honetan ez daukagu inolako alternatiba fidagarrikerik proposatzerik IGEek egoerari berme osoz aurre egin diezaioten. Une honetan, hauxe besterik ez diegu jakinarazi IGEei:

- eztabaidaren muina da ba ote dagoen lan harremanik edo begiraleek egiten duten lana boluntariotzaren esparruan sartzen den.

- begiraleek diru kopuru txikiak jaso ohi dituzte, ordainetan. Ordain hori soldatatzat har al liteke? Euskadiko Boluntariotzaren Legeak boluntarioei aukera aitortzen die diru ordaina jasotzeko, betiere, beren jarduera garatzen eratorritako gastuei aurre egiteko, baldin eta halaxe hitzartu bada boluntarioaren eta dagokion elkartearen arteko baldintzetan. Hori dela eta, aspalditik eskaintzen die BAIKARAK IGEei boluntarioekin boluntariotza kontratua sinatzeko aukera; kontratu horien bidez, begiraleek egin beharreko lanaren baldintzak ezartzeaz gainera, istripu eta gizarte erantzukizuneko aseguruia egiten zaie boluntarioei. Arazoa, ordea, diru ordainarekin sortzen da; izan ere, egindako gastuei aurre egiteko ordain modura hartzen bada, nolabaiteko dokumentazio egiaztagarria beharko litzateke (autobus txartelak, erosketa egiaztagiria...). Egiaztagiririk ezean eta diru ordain horrek ezaugarri jakin batzuk izanik (hilero zenbateko bera sartzeko kontu korrante batean), soldata modura har liteke, eta, kasu horretan, lan kontratua beharko litzateke.

- Hezkuntza Sailaren bidez gestioak egiten ari dira EAJK Diputatuen Kongresuan dituzten euskal legebiltzarkideekin, planteatu dezaten eskola orduz kanpoko begiraleei tratamendu espezifikoa ematea, irabazi asmorik gabeko elkarte eta kirol entitateekin egin bezala. Katalunian liskarra sortu zen tokiko zenbait kirol elkartetan egindako ikuskaritzak direla eta, eta CIU parlamentu taldeak zuzenketa aurkeztu zion "Ekintzaileei laguntzeko 14/2013 Legeari". Legea 2013ko irailaren 27an onartu zen, eta Hamaseigarren Xedapen Gehigarrian katalanen zuzenketa jasota. Zera zioen zuzenketa horrek:

"Actividad desarrollada en clubs y entidades deportivas sin ánimo de lucro. En el plazo de 4 meses desde la aprobación de la presente Ley, el Gobierno procederá a realizar un estudio de la naturaleza de la relación jurídica y, en su caso, encuadramiento en el campo de la aplicación de la Seguridad Social de la actividad desarrollada en clubs y entidades deportivas sin ánimo de lucro que pueda considerarse marginal y no constitutivo de medio fundamental de vida".

Behin betiko irtenbidea aurkitu zain gaude, eta, gaiari irtenbide gogobetegarrikerik aurkituko ez balitzaio, komeni da IGEak lehenbailehen aztertzen hastea hurrengo ikasturtean nola aurre egingo dioten gaiari, kontuan hartuta hiru aukera hauek izan daitezkeela: 1) sektoreko enpresa baten zerbitzuak azpikontratatzeko; 2) begiralea autónomo bihurtzea eta fakturatzeko; 3) lan hitzarmena egitea begiralearekin (gogoan izan Baikarak zerbitzu hori eskaintzen duela); 4) boluntario kontratua egitea, begiraleari ematen zaion diru ordaina justifikatu daitekeen kasuetan; eta azkenean ekintzetan partehartzaileak begiraleari zuzenenan ordaintzea.

4.- LOMCEren AZKEN BERRIAK

Parlamentuan egin beharreko izapideak egin ondoren, ia aldaketarik gabe onartu zuen Diputatuen Kongresuak LOMCE legea, azaroaren 28an. Estatuko Buletin Ofizialean abenduaren 10ean eman zen argitara, eta 2014ko urtarrilaren 3an sartu da indarrean, ofizialki.

Hauxe da legea aplikatzeko behin betiko egutegia:

	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18
Ed. Primaria	- Implantación en 1º, 3º y 5º - Prueba orientativa en 3º	- Implantación en 2º, 4º y 6º - Prueba orientativa en 6º		
ESO		- Implantación en 1º y 3º - En 3º se opta entre dos clases de matemáticas	- Implantación en 2º y 4º - La reválida de 4º no tiene efectos académicos	Se exige la reválida para el título de graduado
Bachillerato		Implantación en 1º	- Implantación en 2º - Se exige la reválida para la entrada a la universidad y desaparece la selectividad	Se exige la reválida para el título de bachiller y el acceso a la universidad
Formación Profesional	- Implantación en 1º de FP Básica	Implantación en 2º de FP Básica y en el Grado Medio		

Bestalde, argitara eman dira Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko curriculumen errege dekretuen zirriborroak. Gai horri dagokionez, Eskola Kontseiluak testu bat aurkeztu du Iraunkorrek onespena eman diezaion. Besteak beste, zera dio testu horrek:

- *Los distintos elementos curriculares cobran otra perspectiva ante la presencia de las reválidas con valor de titulación académica. Hasta ahora, tanto los contenidos de los reales decretos como los que añadía cada administración autonómica, eran después adaptados por los centros, así como el resto de elementos del currículo. El hecho de que la evaluación la realizaran los centros, con su efecto sobre la titulación, daba a los currículos oficiales un valor referencial orientativo. Ahora, cada contenido del currículo y cada estándar de evaluación del real decreto de currículo serán prescripciones directas para la prueba de reválida de la correspondiente etapa, que no tendrá en cuenta ni los contenidos que desarrolle la administración autonómica ni la forma en que cada centro los adapte a su alumnado.*
- *A las competencias educativas básicas sólo se les asigna un papel complementario al tradicional aprendizaje por contenidos. De hecho, si se consideran materias como las Ciencias Sociales de Primaria, Geografía e Historia en ESO, Historia de España o Filosofía en Bachillerato, los contenidos se recogen en listados de conceptos que vienen a sustituir los contenidos procedimentales más comunes en los anteriores decretos de desarrollo de la LOE, lo que significa un retroceso en el tratamiento de las competencias educativas.*
- *Los currículos de las materias mencionadas están sobrecargados, particularmente los de Historia de España. Euskadi tiene que incluir a través de los decretos autonómicos sus propios contenidos curriculares, en los aspectos culturales, geográficos, económicos, humanos e históricos. A la vista del proyecto de decreto real, con el tiempo lectivo que se dispone, esta inclusión parece inviable.*

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak abenduaren 19an gurekin egindako bileran eman zizkigun mezuen arabera, honela labur daiteke egoera:

- Oinarrizko curriculumak ezartzeko errege dekretuen zirriborroek Autonomia Erkidegoaren eskumenak urratzen dituzte, eta konstituzio kontraketasun errekurtsioa aurkezteko aukera aztertzen ari dira.
- LOMCE garatzeko dekretuak onartzeko prozesua dela eta, ez dago astirik horiek 2014-2015ean aplikatzeko.
- Aztertzen ari dira LOMCEren kontrako frontea sortzeko aukera, haren kontra agertu diren autonomia erkidegoekin bat eginda (Katalunia, Andaluzia, Kanariak...)
- Ikastetxeen gestioari dagozkion gaietan (Eskola Kontseiluaren eskumenak, zuzendarien hautaketa...) ez dute inolako neurririk hartuko epe laburrera begira; oraindik, bere horretan utziko dute gaia.

Era berean, aipatzekoa da Eusko Legebiltzarraren azaroaren 27ko Osoko Bilkuran 49 ebazpen onartu zituztela, besteak beste, LOMCE indargabetzea eskatzen duena eta Eusko Jaurlaritzak Auzitegi Konstituzionalean errekurtsioa aurkeztuz gero hari sostengua emateari buruzkoa. Onartutako ebazpenak honako helbide honetan daude kontsultatzeko moduan: http://www.parlamento.euskadi.net/pdfs_acuerdos/2/10/000056.pdf

Azkenik, Gipuzkoako BAIKARAK hitzaldiak egiten jarraituko du, LOMCEren oinarrizko alderdien berri emateko. Federazioaren webgunean eskuragarri dago hitzaldietan ematen ari diren informazioa: <http://www.baikara.org/lomce-legearen-behin-betiko-onarpena/>

5.- Beste gai batzuk

5.1 Euskal Eskola Publikoaren jaiak.

- Balmasedan ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren 23. Jaia, 2014ko ekainaren 1ean. **“Gorantz goaz, go, go go!”** izango da lema.

Jaiaren egun berean egingo da Bizkaiko ikastolek antolatzen duten Ibilaldia (Gernikan). Horren arrazoia da Ikastolen Federazioak maiatzaren 25era aldatu duela bere jaiak, beraien jaiak egin ohi duten egunean Europarako hauteskundeak izango direlako. Aldaketa hori zela eta, EHIGERI eskatu zioten ekainaren 8ra atzera zezala bere jaiak. Eskari hori ez zen onartu, ordea, ulertu baita isilbidezko hitzarmena zegoela bi organismoen artean, bakoitzak urtean egun jakin bat har zezan bere jaiak egiteko, eta, izatekotan, Ikastolen Federazioari zegokiola Eskola Publikoaren jaiarekin bat ez zetorren beste egun bat bilatzea Ibilaldia antolatzeko.

- Eskola Txikien festa ekainaren 8an ospatuko da, Bidania Goiatzen. Eskola Txikien lehen festa Bidania-Goiatzen ospatu zen 1988an, eta **“Eskola Txikiak bizirik- Herri eta Auzo Txikiak bizirik”** leloa izan zuen. Orain, 27 urte geroago, berriro abiapuntura itzuliko da, Bidania-Goiazera.

5.2 Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak

Eusko Jaurlaritzaren 2014ko aurrekontuetan ez dago ia aldaketarik 2013koekin alderatuta. Hortaz, IGEentzako diru laguntzen zenbatekoa 2013koaren berdina izango da; baina laguntzen izapideak eta ordainketa 2013an baino lehenago egitea espero dugu. Ildo horretatik, EHIGEk prentsa ohar bat argitaratu du Hezkuntza Sailak gai honi buruz egiten duen gestioarekiko desadostasuna aditzera emanez, eta partida horretarako diru hornidura handiagoa eskatuz.